

Nik, JESUS M^a MADINABEITIA JAUREGUI jaunak, Oñatiko Udaleko behin behineko idazkari naizen honek,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioen funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

Honako hau EGIAZTATZEN DUT:

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, Tokiko Gobernu Batzarrek, **2025eko abenduaren 18an**, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

"10,2.- Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntzen 2025eko deialdira aurkeztutako eskaeren bigarren ebazpena onartzea. (Esptea: 2025ZDK00016)

Alkatearen 2025eko abenduaren 17ko proposamenak honela dio:

" Unai Kortabarria jaunak (Udal Sozioekonomia Teknikariak eta batzordeko idazkariak) abenduaren 12an egindako txostenean (CSV zkia: ESKUf7763731-08d1-4f70-b540-2ac3d5b6f701) honako proposamena egin du:

Espediente zk.: 2025ZDK00016

Interesduna: OÑATIKO UDALA

Gaia: Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntzak

Sarrera erregistroa: 4297 / 5748

Jarraian azaltzen dira gai honi lotutako **aurrekariak**:

Lehenengoa.- Oñatiko Udalak, 2022ko martxoaren 31n egindako Osoko Bilkuran onartu zituen Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuak, 2022ko apirilaren 11n, 69. Zb.)

Bigarrena.- Oñatiko Udalak, 2025eko martxoaren 27an egindako Tokiko Gobernu Batzarrean, onartu zuen Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntzen 2025eko deialdia. (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua, 2025eko apirilaren 9an, 68. Zb.)

Hirugarrena.- Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta 2025eko deialdia kontuan izanda 4297 eta 5748 erregistro zenbakiak dituzten eskaerak aztertu dira.

ESKUaa5b7bd1-2047-4a93-b70d-a73c2fb6d73c

Aurrekarien balorazioa.

Lehenengoa.- Aipatutako eskaerak aztertu ondoren, jarraian zerrendatzen dira onartutako eskaerak eta bakoitzari dagokion dirulaguntza zenbatekoa:

ESKATZAILEA	IFZ	ESP. ZK.	DIRULAGUNTZA		
			SUST. LANPOSTUAK	ALOKAIRUA	GUZTIRA
GORKA GURIDI OLALDE	***7153**	2025ZDKO0016/4297	3.000€	Ez dagokio	3.000€
JON ETXARRI MENDIZABAL	***3497**	2025ZDKO0016/	3.000€	Ez dagokio	3.000€

Bigarrena.- Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela 1000.480.241.01.01 2025 diru atalean.

Horrenbestez, gertakari hauen azalpenak Sozioekonomia batzordean eman ostean, ondorengo **erabaki proposamena** egiten zaio Tokiko Gobernu Batzordeari:

Lehenengoa.- Goian aipatutako Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntza eskaerak onartzea eta 6.000€ko gastua baimentzea 1000.480.241.01.01 2025 (389) diru partidaren kontura.

Bigarrena.- Jarraian zerrendatzen diren eskatzaileei ordainketa hauek agintzea:

ESKATZAILEA	IFZ	DIRULAGUNTZA
GORKA GURIDI OLALDE	***7153**	3.000€
JON ETXARRI MENDIZABAL	***3497**	3.000€

Hirugarrena.- Ebazpen hau laburtua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Argitalpen honek banakako jakinarazpena ordezkatzeko du; eta jakinarazpena egintzat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik. Interesdunek Oñatiko Udalaren webgunean (<https://oñati.eus/eu>) kontsultatu ahalko dute ebazpenaren eduki osoa.

Laugarrena.- Dirulaguntzaren onuradunak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) argitaratzea.

Bosgarrena.- Erabaki hau eta Kontuhartzaitza sailari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.”

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, Tokiko gobernu batzarrek aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.”

Ziurtagiri hau dagokion akta onartu baino lehen ematen da, eta ohartarazi geratzen da, 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 206 artikuluaaren arabera.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitalean ageri den datan.

Oñatiko Udala
Foruen Enparantza, 1 • 20560 Oñati
tel: +34 943 78 04 11 • onati.eus



EKS | CSV: ESKUaa5b7bd1-2047-4a93-b70d-a73c2fb6d73c

Egiatzatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=05910>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=05910>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas	
Titulua / Título:	2025ZDKO0016-TGB ziurtagiria/JGL certificado (OÑATIKO UDALA)